

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak % 2,8 hazi ziren 2004ko lehen hiruhilekoan

Batez bestekoa baino % 3,4 gehiago hazi da Bizkaia; Arabak (% 2,4) eta Gipuzkoak (% 1,8), berriz, bilakaera neurritsuagoa izan dute.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorearen salmentak, kopuru nominaletan, % 2,8 gehiago izan ziren 2004ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berean baino, Eustatek emandako datuen arabera. Hazkunde nominal horrek, kopuru errealetan, % 1,8ko aldakuntza dakar, hori ere positiboa.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2002	I	3,3	5,4	-0,3
	II	3,2	3,9	1,9
	III	9,6	12,0	4,7
	IV	6,5	8,4	3,3
2003	I	4,2	4,7	3,0
	II	1,9	2,0	1,8
	III	2,2	2,2	2,1
	IV	2,8	3,1	2,3
2004	I	1,8	1,6	2,1

Iturria: EUSTAT

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) % 5,5eko hazkunde nominala izan du lehen hiruhilekoan. Prezioen igoseraren eragina kendu eta gero, urte arteko tasaren aldakuntza % 2,1ekoa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak % 1,3 handitu dira 2004ko lehen hiruhilekoan, 2003ko aldi beraren aldean. Gehikuntza nominal hori, prezioen bilakaera kontuan hartuta, % 1,6koa dugu, kopuru errealetan.

Lurralde historikoka, txikizkako sektoreko salmenta nominalen hazkunderik handiena, lehen hiruhileko honetan, Bizkaian gertatu da. Izan ere, % 3,4ko urte arteko hazkundera izan dugu hor, txikizkako salmenta ez-espezializatua nabarmen hazi delako. Ondoren, Araba dator, indize orokorrak % 2,4ko aldakuntza positiboa izan baitu; Gipuzkoak, oster, hazkunde neurritsuagoa izan du, % 1,8koa. Kopuru errealetan, % 2,4ko gehikuntza izan da Bizkaian, % 1,0koa Araban eta % 1,0koa Gipuzkoan.

2004ko lehen hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean ziren landunei dagokienez, Euskal AEn % 1,7ko urte arteko gehikuntza izan da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Honela dago banatuta lurraldeka: Araban % 3,6 gehitu da, Bizkaian % 2,1 eta Gipuzkoan % 0,3.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 017 505. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es